


# HARKAITZ CANO ♦ ♦

N  
A  
R  
R  
A  
Z  
I  
O  
A

TELEFONO  
KAIOLATUA



ALBERDANIA



HARKAITZ  
CANO ♦ ♦

TELEFONO  
KAIOLATUA

N  
A  
R  
R  
A  
Z  
I  
O  
A



ALBERDANIA



HARKAITZ CANO

TELEFONO  
KAIOLATUA

*NARRAZIOA*

ALBERDANIA

*Bitartean ibillico dira becatutic becatuta amilduaz; oraiñ pensamentu batean, guero seago itz loyak gozotoro aditzean: oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzan, edo dantza ondoan alberdanian.*

(J.B. AGIRRE)

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza  
izan du liburu honek.*

Azala: Antton Olariaga

© 1097, Harkaitz Cano

© Argitaraldi honena: 1097, ALBERDANIA, S.L.

Istillaga, 2, beheka, 20304–Irun

ISBN digitala: 978-84-9868-594-7

ISBN papera: 84-88669-48-8

Legezko Gordailua: S.S. 1006/97

# TELEFONO KAIOLATUA

*METRO BILBAO 5. IRTEERA*

*Desorduetan jotzen zuela, hori bai, eta telefonoa sosegua galdurik hartzerako, inork ez zuela erantzuten. Munduko mutu guztiak telefonoz deika hasi izan balira legez. Seinale bat zen. Sumatzen genuen zer bait, jakina, baina nola igarri halakorik? Askozaz ere geroago hasi ziren hiriko graffiti-egileak gauero metroko sarrera-ahoak herensuge aho bihurtzen, barandila zuriak munstroen hortzadura beldurgarri bihurtzeraino antzaldatu eta beheranzko eskailerak igel mingain harraparien itxurara margotuz pintura gorriarekin. Munstro bat zegoen lurpean, eta apurka-apurka, denok irentsiko gintuen.*

## ITSASO KOMUNISTA

Hilabete bazen itsasoratu ginela.  
Bizarra luze genuen eta alkandorak  
zarratatuta.  
Ezpainetara lapatutako  
elur maluta idorrak bailiran  
trostan ainguratzen ziren gatz aleak  
eztarri-zuloetara.  
Ezerekin estropozorik ez egiteko  
arretaz nabigatzen genuen,  
hanka-puntetan ibiltzen ginen  
olatuen gainean  
ur zuloz inguratuta geunden hartan.  
Egunsenti batez, esnatzean  
nork bere postutik  
itsasoa gorriz tindaturik bistatu genuen  
harrituta.  
Isiltasunak bere iritzia azaldu ostean  
zuhurki mintzatu zen gabiara igota  
lau horizonteak eskura zituena:  
—Ez, ez da zuek uste duzuen.  
Sotoetako ardoa aspaldi ahitu zitzaigun.  
Kontinenteak dira  
odolusten ari direnak.

## ALDATZ BEHERA ITSASOAN

Pinta, Niña eta Santa Maria ontziek Amerika harrapatu aurretik bi saio izan ziren Indietara heltzeko. Lehenengoa, aski ezaguna, espainiar monarkiaren hainbat belaunaldiren lotsabide izan da, eta historia libururik arruntenetan jasorik ez dagoen arren, Sevillako Indietako liburutegiko apal-sotoak behar bezala arakatu gero, bada haren testigantza anitz, João Capêlo Soares historialariaren idatziei esker. Lehenengo saio hori Indietara abiatu eta ekaitz latz batek erabat desegin zuen belaontziek egindakoa izan zen. Hilabeteko noraezaren ondoren lurra bistatu zuten, hala ere. Lur zibilizatuegia ordea. Kadizen atera eta, Amerikara heldu ordez, Lisboan bukatu zuten beren abentura. Bigarren saioa urte anitz geroago mamitu zen, eta hala izanik, itxuraz estreinakoa baino dokumentatuagoa beharko lukeela lirudiken arren, hari buruzko datuak askozaz ere urriagoak dira.

Manual nabegazionezkoetan nekez aurki daiteke espedizio horren berririk, dirudienez, porrotari buruzko dokumentuak oro suntsituak izan zitezela agindu zuelako Fernandok Errekonkistan murgildu berritan, amesgaiztoak suak uxatzen dituelako sineskeria ez baita bart gauekoa. Teodosio Garmendia izeneko kronista baten memorietan aurki daiteke soilik bidaia hura izan zelako lekukotza, liburu apergaminatuaren orrialdeen artean, letra ornatu eta larriz *ALDATZ BERA ICHASOAN* dioen pasarte bat, egunkari erara idatzitako paragrafo batzuk erantsita dituen. Gainerantzeko orrialde gehienak —ontziaren deskripzioaz eta xehetasun teknikoaz mintzo direnak salbu— urratuak edo kixkaliak ageri dira, baina erdialde babestuan egokitu delako-edo, salbatu bide da ke bihurtzetik *Aldatz bera ichasoan* dioen atala. Beheko aldean, urtea irakur daiteke, 1469, eta bukatu gabeko esaldi bat latinez: *Bona fides non semper ad gloriam*. Apur hori, bere gutxian, nahikoa da halere, inoiz gertatu ez zena benazkoa dela baieztatzeko.

1469ko azaroan, Fernando Isabel Gaztelakoarekin ezkondu ostean, azkenean izarrak lerratu ziren itxuraz zorte onaren kupula inguratuz. Indietarako lehen saiakera lotsagarri haren oihartzunak itzalduxeak ziren hartan, Fernando II.ak penintsulako gizonik prestuenak deituarazi zituen, merkatari nahiz gerragizon ibilitakoak gehienak, kementsuen eta gotorrenak. Ados ziren denak Fernandok ezarritako hogeita mila urrezko dukateko diru sariarekin eta bi asteko epean abiatzekotan geratu ziren, izarren aldeko lerratzearen egokitasuna ahalik eta hobekien baliatu asmoz. Sevillan jendea kaleetara atera zen saldoka, zenbaitek heroitzat eta gehienek errotz hartzen zituzten tripulaziokideak azkeneko aldiz ikustera, ezen bai alde batekoek zein bestekoek ziurtzat jotzen zuten gauza bakarra huraxe baitzen: ez zituztela abiatzera zihoazen haiek gehiago ikusiko. Plaza erdiko urkatuek baino jende gehiago erakarri zuen gertakari hark. Herio laster batean aurrez aurre ezagutuko duen jendea ikustea beti maite izan baitu gizakiak. Inoren heriotza ikusita, norberarenari buruzko ikasgaireren bat aterako dutelakoan. Bizitzaren zamaketarientzat hori guztia ikustea aringarri izango balitz bezala.

Tripulaziokideen artean ziren besteak beste, René Deville sukaldari frantziarra —Bordelen sona handia zuena—, Toledoko fraide menturazale bat, Ezekiel goitizenez ezaguna, eta Ismael Arteche, Lekeitioko semea. Eta horien guztien buru, Iñigo de Berasaluce kapitain gipuzkoarra. Itsasontzian lanik astunenak egiteko bizi osorako kondena zuten gizonak ontziratu nahi izan zituen erregek, ordainetan askatasuna eskainirik; baina halako izu laborria eragin zien bidaia hark, sei preso baino ez baitziren ausartu aukera hori baliatzera.

Sevillatik Palos aldera zaldiz abiatu ziren, bideko ermita txikiena ere bisitatzeari uko egin gabe; beren bidea luzatuz, nola maitale herabearen eskuak maitemina gorpuztean biderik luzeenak xerkatzen saiatzen diren, marrubien sastraketara galdu aurretik. Baina zaldizko haiek itsasoa zuten ohantze, eta itsasoa ertzik gabeko hilkutxa da. Eta nork daki, agian basamortu marrubirik gabea zatekeen, ireki behar ez ziren ur-ateak irekiz gero, gainera amilduko zitzaiena. Nolanahi ere, jakinekoa da bideak merezi duela heldzeak berak baino gehiago. Eta ezin uka aurki arrastoan izanen zirenik.

Bidera inguratzen zitzairen jendeari atentzioa ematen zion beste zer bat ere bazen: kaiola batean preso zeramaten piztia hura. Kosta zitzairen, bai polito kosta ere, behin Palosko itsasartera heldzean, kaiola kalamuzko sokabilduez jaso eta ontzira jasotzen. Basurdea zela iparrorratzik fidagarriena sartu zion